

ikertzen

MONDRAGON
UNIBERTSITATEAREN
IKERKUNTZA
GEHIGARRIA


Mondragon
Unibertsitatea

2026KO UDABERRIA
17. ZENBAKIA



Zenbakia BI ELETARA
Nº BILINGÜE



Zenbakia
EUSKARAZ



Ejemplar en
CASTELLANO

Hidrogeno bidezko hauskortasuna aztertzekeo puntako ekipamendua eskuratu du Goi Eskola Politeknikoak

GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK TRIBO PHOENIX TE60 TRIBOMETROA ESKURATU DU, HIDROGENO KAMERA PRESURIZATU ETA ATENPERATUA DUEN EKIPU ESPEZIALIZATUA DA.

Hidrogenoarekin kontaktuan lan egiten duten konponenteen arteko kontaktuetan gertatzen diren higadurak eta materialen degradazioak (hala nola hidrogeno bidezko hauskortasuna) aztertzekeo diseinatuta dago. Merkatu prezioa 300.000 eurotako da eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzarekin eskuratu da.

TriboPhoenix TE60 tribometroak balio du Tribologia hidrogeno atmosferan aztertzekeo; hau da, materialen arteko marruskadura eta higadura neurtzen ditu H₂ presurizatupean. Baita ere, hidrogeno bidezko hauskortasun azterketak egitekeo; hau da, konponenteen nekea eta pitzadurak nola hedatzen diren aztertzekeo; eta lubrifikatzaileen eraginkortasuna ere neurtzekeo. Horrela, hidrogeno inguruneetan lubrifikatzaileek (olioak edo estaldurak) duten portaera balioztatu dezake.

Istripu arriskuak murriztekeo

Ekipo espezializatu honen garrantzia berebizikoa da, ahalbidetzen duelako segurtasuna bermatzeko funtsezkoak diren probak egin ahal izatea. Hain zuzen ere, hidrogenoa molekula oso txikia da eta materialen egituraren sartzeko joera du, haiek ahulduz. Eta proba hauen bidez, hidrogenoaren ekonomian erabiliko diren makinak bizi iraupena aurreikusitu eta istripu arriskuak murriztu daitezke.

Ekipo honekin egin daitezkeen probak oso garrantzitsuak dira batez ere trantsizio energetikoan eta industria astunean diharduten



sektoreentzat: hala nola, Energia sektorean, hidrogenoaren ekoizpen, biltegitratze eta garraiorako; Lubrifikatzaileen sektorean, hidrogeno baldintzetan lan egingo duten formulazio berriak garatzeko; Gas & Oil sektorean, azpiegiturak hidrogenora egokitzeko (H₂-ready); eta Garraio astun eta Aeronautikan, hidrogeno bidezko motorrak eta erregai pilak garatzeko.

Egin daitezkeen probak oso garrantzitsuak dira batez ere trantsizio energetikoan eta industria astunean diharduten sektoreentzat.

Proiektu garrantzitsuak martxan

Gauregun Goi Eskola Politeknikoak ekipamendu honen erabilera sustatzen duten hainbat proiektu ditu martxan. Horietako bat da H₂Shield proiektua (GFAren babesarekin) eta proiektu honek hiru norabide nagusi jarraitzen ditu: Oztopo-estaldurak (Barrier Coatings): gainazaletan geruza ultra-finak eta erresistenteak aplikatzea, hidrogeno atomoak materialaren barnera igaro ez daitezen; Material Berrien Karakterizazioa: hidrogeno baldintza gogorretan (presio eta temperatura altuetan) hobeto portatzen diren aleazioak identifikatzea; eta Monitorizazio Sensorika: gas-ihesak edo materialaren nekea denbora errealean detektatzeko sensoare aurreratuak integratzea. Gainera, Frantziako CETIM ikerketa zentroarekin kolaborazio akordioa dute ikerketa egiteko.

INBERTSIO HANDIA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzarekin eskuratu da ekipamendu teknologiko berritzaile hau.

Concluyen los proyectos H2MAT y H2MAT+ sobre comportamiento de materiales en presencia de hidrógeno

SE HAN ULTIMADO DOS PROYECTOS DE INVESTIGACIÓN CON EL OBJETIVO PRINCIPAL DE DESARROLLAR CONOCIMIENTOS, CAPACIDADES Y METODOLOGÍAS ROBUSTAS PARA DISEÑAR, PRODUCIR Y EVALUAR MATERIALES Y ESTRUCTURAS METÁLICAS ATENDIENDO A SU COMPORTAMIENTO EN PRESENCIA DE HIDRÓGENO.



Las iniciativas Elkartek de Tipo I, denominadas H2MAT (2022-2023) y H2MAT+ (2024-2025), han sido subvencionadas por el Departamento de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad del Gobierno Vasco. El consorcio ha sido liderado por Mondragon Unibertsitatea junto a los socios Azterlan, CEIT, Tecnalia, Vicinay Marine Innovación, Tubacex Innovación, Sidenor I+D, EHU y Basquenergy Cluster, sirviendo además este entorno colaborativo para el desarrollo de varias tesis doctorales integradas en los proyectos.

Finalizados en diciembre de 2025

Finalizados en diciembre de 2025, los trabajos han tenido como cometido analizar la permeación y propiedades mecánicas en presencia de hidrógeno de aleaciones de alta entropía, HEAs, (convencionales y propias) y de diversos aceros. Asimismo, se estudió el comportamiento de estructuras híbridas aligeradas aluminio-acero inoxidada-

Específicamente, ambos proyectos han respondido a dos retos: la fragilización y el almacenamiento eficiente.

ble y las interfases de uniones híbridas HEA-acero producidas mediante tecnologías Near Solidus Forming, fundición centrífuga, cofusión y HIP.

Dos retos principales

Específicamente, ambos proyectos han respondido a dos retos: la fragilización y el almacenamiento eficiente. En cuanto a la fragilización, se analizó la susceptibilidad de los diferentes materiales frente al hidrógeno para definir nuevas estructuras metálicas capaces de operar con menor riesgo que las actuales. Para el almacenamiento, se desarrollaron combinaciones de metales aptas para resistir ambientes ricos en hidrógeno. Otro hito clave ha sido establecer una amplia capacidad experimental para investigar corrosión, fragilización y fatiga, permitiendo medir y evaluar cómo el hidrógeno es ab-, ad- y desorbido, y cómo estas interacciones afectan las propiedades del material.

AMPLIO EQUIPO

Equipos de trabajo de los proyectos H2MAT y H2MAT+.

Adimen hibrido eta generatiboa etorkizun seguru baterako

MSCA-DN PROIEKTU EUROPEAR BAT DA SISTEMA ZIBERFISIKO AUTONOMOEN FUNTZIONAMENDU EGOKIA ZIURTATZEKO BERTAN TXERTATUKO DEN INTELIGENTZIAREN FUNTZIONAMENDU, PORTAERA ETA BILAKAERA ZIURRA ETA SEGURUA IZATEKO.

14DC (doktoregai) daude proiektuan eta hauetako bakoitzak gai honen inguruan ekarpen desberdinak egiteko proiektuak garatzen dabilta. Aplikatzeko alorra transbertsala da, Sistema Ziberfisiko Autonomoak ia edozein sektoretan erabili daitezkeelako: fabrikazio aurreratuan robot bidez, medikuntzan, energiaren alorrean mantenketan lanak egiteko...

Proiektua 7 partnerrek osatzen dute:

Goi Eskola Politeknikoa (koordinatzailea, 3DCrekin), Simula (Norvegiakoa, 2DCrekin), OSLO-MET (Norvegiakoa, DC1ekin), UBern (Suitzakoa, 2DCrekin), UMA (Espainia, 2DCrekin), University of Sannio (Italiakoa, 2DCrekin) eta VUA (Herbeheretakoa, 2DCrekin).

Proiektua 2024ko irailean hasi zen. Lehenengo fasean, doktoregaien aukeraketa egin zen. DC edo doktoregai hauek lana egiteko 3 urteko epea dute eta proiektuaren iraupena 48 hilabetekoa da.

Goi Eskola Politeknikoaren kasuan, 3 doktoregai dabilta hiru proiektu konkretu garatzen; honako hauek:

- Arusa Kanwal: AI bidezko CPS (Sistema Ziber-Fisiko) entzat testatze-esparru automatizatu bat garatzea, EBko IA Legea (EU-AI Act) eta CPSekin lotutako gainerako araudiak betetzen dituena.
- Khizra Sohail: Sistema Ziber-Fisiko Autonomo etarako (ACPS)



neurria egindako Programen Konponketa Automatizaturako (APR) esparru bat diseinatu, inplementatu eta balioztatu, software osagaietatik zein IA bidezko osagaietatik datozen fidagarritasun eta segurtasun erronkei erantzuteko.

- Amna Khan: Arrisku handiko eta IA bidezko sistema Ziber-Fisikotarako (CPS) monitorizazio mekanismoak eta gizaki makina interfazeak (HMI) ikertu, diseinatu eta balioztatzea, EBko IA Legeak giza-kiaren gainbegiratzeari buruz ezartzen dituen eskakizunekin bat etorritz.

Horrez gain, proiektuaren helburu nagusietako bat guztien artean proiektu integratu bat egitea ere bada, eta Goi Eskola Politeknikoa proiektuaren koordinatzailea izanik, horren lanketa ere prestatzen dabil. Aitor Arrieta da proiektuaren koordinatzailea eta Miren Illaramendi Project Managerra.

Bestalde, aipatutako doktoregaietz gain, DC3aren topic-a eta ikerketa aurrera eramateko Diseinu

Innoguard proiektu estrategikoa da Goi Eskola

Politeknikoarentzat, proiektu honen gaia erabat alineatuta dagoela SSE taldeko plan estrategikoarekin.

Berrikuntza Zentroa ere parte hartzen dabilta.

Innoguard proiektu estrategikoa da Goi Eskola Politeknikoarentzat, proiektu honen gaia erabat lerrokaturik dagoelako Software Injeniaritza eta Sistemak ikerketa taldeko plan estrategikoarekin. Identifikatuta duten ildo nagusietako bat da Sistema Ziberfisiko Autonomo Seguruaren gaia eta erabat bat egiten dute ildo horrekin.

LANTALDE GAZTEA

Proiektuan ari diren doktoregaiak eta haien arduradunak.

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Proyecto Moditrans: nuevas tecnologías para mejorar transformadores



ESTE PROYECTO ESTATAL, RESPALDADO POR MICINN, HA TENIDO UNA DURACIÓN DE 36 MESES Y SE APLICA ALLÁ DONDE SE INSTALAN TRANSFORMADORES DE DISTRIBUCIÓN, ESPECIALMENTE EN FOTOVOLTAICA Y EÓLICA.

Los equipos de Energía Eléctrica y Teoría de la Señal de la Escuela Politécnica Superior han participado en el proyecto Moditrans de desarrollo de nuevas tecnologías y metodologías para mejorar la modelización, diagnóstico y funcionamiento de los transformadores de distribución.

Para ello, se realizaron diseños más eficientes y fiables, capaces de operar también donde las exigencias térmicas y eléctricas son especialmente elevadas. Se han desarrollado sensores innovadores para conocer en tiempo real la calidad del aceite dieléctrico. A su vez, se han diseñado sistemas y estrategias para reducir las corrientes de conexión de los transformadores que puedan implementarse directamente en interruptores de media tensión, mejorando así la estabilidad de la red. Por último, se planteó el desarrollo de una

metodología avanzada para calcular el Health Index (HI) del transformador, integrando modelos físicos y probabilísticos junto con los datos de sensorización.

Estos equipos han participado en el desarrollo de modelos electromagnéticos, y de estrategias de minimización de las corrientes de conexión de los transformadores utilizados para la integración de energías renovables. Adicionalmente, han trabajado en la elaboración del índice de salud o Health Index.

Han publicado 6 artículos científicos y tienen en revisión otros 2. Además, la doctorando Jone Ugarte Valdivielso fue premiada con la beca de CIGRÉ para asistir a la conferencia internacional ARWTr 2025 de Baiona (Galicia) por el artículo 'Power Transformer Modelling for the Evaluation of a Reinforcement Learning-Based Inrush Current Minimization Strategy.'

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Automoziorako konposite termoplastikoen fabrikazio prozesu hibridoak



ZeKonp eta Resites proiektuetan konposite termoplastikoen fabrikazio prozesuak hibridatzen dira, automozio sektoreko fabrikazioan behar dituzten osagai arinagoak garatzeko, prestazio mekanikoak errespetatuz eta material zein prozesu jasangarriak garatuz.

Eusko Jaurlaritzak babesitutako proiektuak dira biak eta sei partner euskaldunek osatzen dituzte: Gaiker, Tecnalia, Leartiker, Cikatek, EHU eta Goi Eskola Politeknikoa. ZeKonp proiektua 2022an hasi zen eta 2024 urtean bukatu; ondoren, Resites proiektuak aurrekoari jarraipena eman dio eta 2026an bukatuko da.

Goi Eskola Politeknikoak ZeKonp proiektuaren bigarren zatiaren (WP.2) ardura izan du, *Desarrollo de procesos de fabricación de estructuras híbridas* deritzona. Helburua izan da osagai termoplastiko hibridoak (GMT+fabrikazio gehigarria) buruzko oinarritzko ezagutza sortzea, diseinu eta fabrikazio eremuei dagokienez, eta

baita osagarri horiek fabrikazio gehigarri bidez fabrikatutako piezekin konponketarena ere. Orain, ZeKonp proiektuaren jarraipena den Resites proiektuan dabilta ikertzen, ZeKonp-en garatutako prozesu hibridoetan erabilitako materialak birziklatu eta prozesu hibridoetan berreraibili daitezken edo ez frogatzeko.

Aipatutako bi proiektu hauek guztiz bat datoz Goi Eskola Politeknikoko ikerketa taldearen estrategiarekin, konpositeen fabrikazio aurreratuan eta material arin eta jasangarrietan oinarritzen direlako. Gainera, Basque Industry 4.0ren helburuekin lerrotatuta egoteaz gain, 2030eko Euskadiko Ekonomia Zirkularren Estrategiarekin eta 2050eko Klima Aldaketaren Euskal Estrategiarekin ere bat datoz, denontzat oinarritzkoak diren helburuak elikatuz. Gainera, dagoeneko lortutako emaitzekin inpaktu altuko (Q1) aldizkarietan publikazioak egin dituzte.

Bessfire, baterien segurtasuna hobetzeko

MUGIKORTASUN ELEKTRIKOAREN ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIEN HEDAPENEAN, BATERIEN SEGURTASUNA FUNTSEZKO ERRONKA BIHURTU DA. TESTUINGURU HORRETAN, GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK, EUSKAL EKOSISTEMAKO BESTE ERAGILE BATZUEKIN, BATERIEN SU ARRISKUAK ETA ZAHARTZE PROZESUAK SAIHESTEKO IRTENBIDE TEKNOLOGIKOAK GARATZEN DABIL.


Bessfire proiektuaren helburu nagusia baterietan gerta daitezkeen enbalamendu termikoa (therman runaway) eta horrek eragin dezakeen sute arriskua ekiditea da. Arazo horri hiru modutan egiten diote aurre: bateriaren egitura optimizatuz, sute bat sortzekotan gainerako gelaxketara ez zabaltzeko eta kate erreakzioa mozteko; *Lithium plating* deritzon fenomeno (litio-metal metatzea) saihestuz, bateriak seguruagoak izateko. Horrela, barne akatsen probabilitatea murrizten da eta estazioek karga prozesuan izan ditzaketen akatsak goiz detektatu eta suteen aurrean modu aktiboan esku hartu dezakete.

Asmoa da mugikortasun elektrikoan (ibilgailu arin zein astunetan eta autobus elektrikoetan) zein parke fotovoltaikoetako baterietan aplikatzea.

Eusko Jaurlaritzak babestutako proiektu honetan, Tecnalia, Cidetec, Ikerlan, EHU eta Goi Eskola Politeknikoak hartzen dute parte. 2025eko martxoan eman zitzaion hasiera eta aurreikuspena da 2026aren abenduan bukatzea.

Fluido eta Biltegitratze taldeak

Une honetan Goi Eskola Politekniko-koko ikertzaileak simulazio terminoak garatzen dabilta, eta era berean laborategi mailako pla-



Bertako ikerlariak jantzita daude esparru honetan: horren adibide dira *lithium platin*-a prebenitzeko algoritmoak garatzeko doktore tesia martxan egotea, Europako Relive proiektuan ere hemen garatutako ideiak aplikatzeko interesa...

ting-aren prebentziorako algoritmoa diseinatzen dabilta gerora diseinu horiek inplementatzeko. Goi Eskola Politekniko-koko bi ikerke-

ta talde dabilta lanean proiektu honetan: Fluidoaren taldea, zeinek diseinu fasean termal runaway ereduak eraikiz gelaxken portaera aztertzen duen gerta daitezkeen akatsak simulazio-inguruneetan aurreikusteko eta diseinua hobetzeko; eta Energia biltegitratzeko taldea *Battery Management System* (BMS) sistemarako algoritmo berritzaileak diseinatzen duena. Algoritmo horiek baterien zahartzea eta *lithium plating*-a kontrolatzen dute, sutea eragin dezaketen barne zirkuitu laburrak ekiditeko.

Baterien segurtasuna garrantzia handiko kontua da gaur egun eta oraindik ere bateria komertzialetan ez da ohikoa halako algoritmo aurreratuak aurkitzea. Horregatik, proiektu hau oso estrategikoa da Goi Eskola Politeknikoarentzat. Izan ere, bertako ikerlariak jantzita daude esparru honetan: horren adibide dira *lithium platin*-a prebenitzeko algoritmoak garatzeko doktore tesia martxan egotea, Europako Relive proiektuan ere hemen garatutako ideiak aplikatzeko interesa...

MUGIKORTASUN ELEKTRIKOAK

Asmoa da berrikuntza hauek mugikortasun elektrikoan zein parke fotovoltaikoetako baterietan aplikatzea.

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Sistema adimendunen erabilera jasagarria

SISTEMA ADIMENDUNEK DUTEN ERAGINKORTASUN EKONOMIKOA HANDITU ETA INGURUMENEAN ERAGIN DEZAKETEN INPAKTUA TXIKITZEKO METODOLOGIA ETA ERREMINTAK AZTERTU DITUZTE.



Eusko Jaurlaritzak, Elkartek programaren baitan, babestutako Greco proiektua transbertsala da eta sektore guztietan aplikatu daiteke. Liderra TecNALIA da eta partaideak TecNALIA, Multiverse, Dominion, Hispavista Labs, Goi Eskola Politeknikoa, UDEUSTO eta Tekniker.

Proiektua 2024ko irailean hasi zen eta 2025ko abenduan bukatu. Beraz, orain Goi Eskola Politeknikoko ikertzaileak azken dokumentazioa prestatzen eta proiektua ixten dabilta.

Goi Eskola Politeknikoko bi ikerketa taldek hartu dute parte: Software eta Sistemen Ingenieritza (SSE) eta Ekonomia Zirkularra eta Jasagarritasun Industrial (ECSI). Lehen taldeak sistema adimendunek software mailan eragiten duten kontsumoaren monitorizazio erremintak ezagutu eta egin beharreko lanen arabera egokienak zein diren eta elkarrekin nola erabili ikertu du. Ekonomia zirkularreko taldeak, aldiz,

AAren ezaugarriak aztertu ditu jasagarritasunarekin lotuta, hainbat alderdi kontuan hartuz, eta aholkuak ematen saiatu da "Green AI"-rako bidea nondik jorratu argitzeko. Lan honetan Goi Eskola Politeknikoko Berrikuntza, Antolakuntza Eredua eta Pertsonen kudeaketa Estrategikoa taldeko lankideen ezagutza ere baliatu dute.

Ikertzaile hauen ustez, "Green AI" ikertzea estrategikoa da baino ezin dira albo batera utzi hartzen dabilen dimentsioa eta eragiten duten energia kontsumoa. AA erabiltzea ondo dagoela diote, baina ezinbestez jasagarria izan behar duela; eta horretarako noiz eta nola erabiltzen jakitea oso garrantzitsua dela. Era berean, aurrea hartu nahi izan dieten Europar garatzen ari diren politikei eta GRECOK aukera eman die testuingurua zein kasu errealek aztertzeko, eta "hobestutako praktika" k aurkitzeko.

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Mejora de los procesos en la célula de acabado de los machos de roscar



EL OBJETIVO DEL PROYECTO MODUL4R ES CREAR SOLUCIONES TECNOLÓGICAS QUE AYUDEN A LAS EMPRESAS DE FABRICACIÓN EUROPEAS A CONTROLAR SUS PROCESOS DE MANERA MÁS EFICIENTE, FLEXIBLE Y RÁPIDA, INCLUSO FRENTE A PROBLEMAS O CAMBIOS INESPERADOS.

El caso de estudio de la Escuela Politécnica Superior se ha centrado en la célula de acabado de los machos de roscar para los sectores de aeronáutica y generación de energía eólica. El proyecto busca mejorar este proceso, haciéndolo más rápido, flexible y confiable, reduciendo errores y aumentando la producción. Y, de hecho, ya han logrado mejorarlo: implementando la solución de automatización de la Escuela Politécnica Superior, el tiempo semanal de producción se ha reducido de 136 horas a menos de 22, lo que representa una reducción del 84% y un aumento de productividad de más del 520%.

Este proyecto, que está respaldado por la Comisión Europea, y participan 19 partners de 10 países, se inició en enero de 2023 y está en la fase

final, ya que finalizará en junio de 2026.

Investigadores de la Universidad han integrado el problema en su célula robótica flexible con el robot Staübli TX200 y la mesa Kuka MA-KP2-HV, simplificando el layout de la empresa. Han programado los movimientos seguros que debe ejecutar el robot para trasladar las bandejas con machos entre las distintas estaciones de acabado; y también han desarrollado un algoritmo flexible que permite al robot decidir qué tipo de bandeja mover a cada estación en función de las particularidades de cada ruta de manufactura.

En el proyecto han participado el grupo de investigación de Mecanizado de alto rendimiento y el grupo de Accionamientos eléctricos de Mondragón Unibertsitatea.

“Gizarteari transferitzeko eta eragiteko bokazioz ikertzen dugu”

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEAREN BAITAN SORTUTAKO LANKI KOOPERATIBISMOAREN IKERTEGIAK 25 URTE BETE ZITUEN JOAN DEN URTEAN. IKERTEGI HONEN BOKAZIOA HASIERATIK IZAN DA KOOPERATIBISMOAREN BEREZKO ZUNTZETAN ETA EZAUGARRIETAN SAKONTZEA, KOOPERATIBISMO ERALDATZAILEAGO ETA GAURKOTUAGO BAT EGITEN LAGUNTZEKO, ETA HORRETAN JARRAITZEN DU IKERTZAILE ETA EKINTZAILE LANTALDEAK BURU-BELARRI LANEAN. LANKI-REN SORRERAZ, BILAKAERAZ ETA ETORKIZUNAZ ZEIN KOOPERATIBISMOAREN ERRONKATAZ GEHIAGO JAKITEKO LANKI KOOPERATIBISMOAREN IKERTEGIKO ZUZENDARI AINARA UDAONDOREKIN ELKARTU GARA.

**LANKI Kooperatibismoaren Iker-
tegia 'bidelagun' gisa definitu izan
duzue...** Bai, gure inguruko ekosis-
temako eragile batek baino gehiagok
bidelagun hitzarekin definitu gaitu
eta, egia esan, guk ere horrela ikusten
dugu gure burua. Gure bokazioa eta
misioa hasieratik izan da kooperati-
bismoaren berezko zuntzetan eta
ezaugarrietan sakontzea: kooperati-
bismo eraldatzaileago bat, gaurko-
tuago bat egiten laguntzea... Hori
izan da gure bidea. Eta hori inguruko
eragile kooperatiboekin batera egi-
tea.

Bide horretan bi estrategia nagusi-
garatu ditugu. Batetik, ikertzea, hau
da, sakon ulertzea zer garen, koope-
ratibetan berrikuntza sustatzeko. Eta
bigarrenik, hezkuntzaren bidez
eragitea. Ikertzen dugun hori gizar-
tera eta gure kooperatibetara hez-
kuntzaren bidez zabaltzen dugu. Bi
begirada horiek, ikerketa eta hezkun-
tza, hasieratik egon dira oso presen-
te eta gaur arteko bidea egiteko
modua izan dira.

**Zer ematen dio Mondragoneko
kooperatibismoak LANKI Koope-
ratibismoaren Ikertegiari, eta zer
LANKIk Mondragoeko kooperati-
bismoari?** Arrasateko kooperati-
bismoa oso lurzoru interesgarria
da guretzako. Gure langai eta

ikergai nagusia euskal kooperati-
bismoa da, eta modu berezi
batean, Arrasateko Kooperatiba
Esperientzia. Hortaz, Mondrago-
neko kooperatibismoakeskaintzen
digu munduan erreferentziala den
ekosistema kooperatibo baten
ulerkeran sakontzeko eta eragiteko
aukera.

Eta guk Mondragoneko koope-
ratibei zer eskaintzen diegun? Urte
hauetan guztietan eragin dugu
hezkuntza kooperatiboan progra-
ma ezberdinak abiaraziz: harrobi
kooperatiboa sortzen lagundu
dugula esango nuke. Eta, aldi
berean, ikerketaren bidez mugi-
mentu kooperatiboak izan dituen

Gure bokazioa eta
misioa hasieratik
izan da
kooperatibismoaren
berezko zuntzetan eta
ezaugarrietan
sakontzea

mugarri eta erronka ezberdinen
aurrean argia ematen saiatu gara.
Adibide moduan, Fagor Etxetres-
nak kooperatibaren erorketaren
harira egin genuen ikerketarekin
eredu kooperatiboan sakondu
nahi izan genuen. Eta gaur egun
ere politika sozio-empresarialare-
kin bat datozten gaietan ikerke-
ta-ekarpina egiten dihardugu.

**Zuen egiteko modua ez da ikertze-
ra mugatzen, eragiteko ikertzen
duzuela esaten duzue. Zergatik?**

Bai, horrela da. Gure ezaugarrietako
bat hori da: transferitzeko eta eragi-
teko bokazioz ikertzen dugu. Horre-
la ulertzen dugu unibertsitatearen
papera. Gure kooperatibek dituzten
erronka eta aukeretatik gertu egotea
da gure egiteko modua. Gainera, asko
ezagutzen ditugu gure kooperatibak;
milaka eta milaka kooperatibistekin
egon gara gure formazio programe-
tan, eta esperientzia horrek erreali-
tatearekin lotura oso zuzena eskain-
tzen digu ikerketa egiterakoan. Sarri
kooperatibistekin eurekin elkarla-
nean egiten ditugu gure ikerketa
lanak. Adibidez, gure azken LANKI
Koaderno, korresponsabilitateari
buruzkoa, agente kooperatiboak
debatean jarrita osatu genuen, eta
emaitzak harrera oso ona izan du
gure kooperatibetan.



**AINARA
UDAONDO**
LANKI Kooperati-
bismoaren
Ikertegiako
zuzendaria



Kanpotik miresten dute, barrutik kritiko samarrak gara. Baina ezin da ukatu hemengo kooperatibismoan inguruan bakarrak diren ezaugarriak ditugula... Kanpotik begiratzen gaituztenean ohartzen gara Euskal Herrian ekosistema kooperatibo oso aberatsa daukagula. Kuantitatiboki eta kualitatiboki oso esanguratsua dena. Mondragon taldea daukagu, baina badira ikastolak bezalako mugimendu interesgarriak ere. Erreferentziala da euskal kooperatibismoa. Eta zergatik begiratzen gaituzte? Lurralde txiki batean kooperatiba kontzentrazio eta aniztasun handia dagoelako. Hemen gai izan gara gizarteko ia edozein sektore formula kooperatiboaren arabera antolatzen: industria, hezkuntza, kontsumoa, nekazaritza, zerbitzuak, finantzak... Hori ez da ohikoa. Beste ezaugarri bat da gureak lan elkartuko kooperatibak direla asko, langile eta jabe garelako aldi berean. Eta azkenik,

interkooperazio mekanismoen garapen maila azpimarratuko nuke, munduan oso leku gutxitan gertatzen dena.

'Hezkuntzaren palankarekin eragiteko' asmoa izan duzue beti, eta milaka pertsonekin egin duzue lana Otoran zein enpresa ugarietan. Zergatik? Zertan datza zuen proposamenak? Bai, hezkuntza

Transferitzeko eta eragiteko bokazioz ikertzen dugu. Horrela ulertzen dugu unibertsitatearen papera.

BURUJABETASUNA

Bere burua antolatzen duen gizarte bat eraikitzeko norabidean, kooperatibismoa oso formula interesgarria da.

estrategia garrantzitsua da guretzako. Argi daukagu kooperatibismo eraldatzaileagoa eta kooperatibista kontzienteeagoak nahi baditugu, hezkuntza eta hausnarketa kooperatiboan eragitea ezinbestekoa dela. Garrantzitsua da kooperatibako kapa ezberdinetara heltzea: organo sozialetako kideak, maila exekutiboan diharduten arduradunak, bazkide berriak, eta bazkide kolektibo osoak. Hartzaile mota bakoitzarentzako programa eta proposamen egokiak sortu behar dira, eta modu sistematikoa elikatu.

Orotara, gaur arte 30.000 lagunetik gora izan dira gurekin formazio programa ezberdinetan. Gure Kooperatibagintzan aditua, adibidez, oso ezaguna da kooperatibetan (18 edizio egin ditugu dagoeneko!). Eta kooperatibetako kolektibo osoarentzat neurria egiten ditugun transferentzia-formazio prozesuak oso interesgarriak dira. Ikasturte honetan, adibidez, Laboral Kutxako Zentzua prozesuan dihardugu; Ulma Handling-eko bazkide kolektiboarekin lan egin dugu; eta Coprecin abiatzear gaude hausnarketa kooperatibo prozesu berri bat.

Duela 25 urte zuen helburu nagusia 'kooperatibigintzaren esentzia gaur egungo gizartean berrasmatzea' zen eta 'enpresa kooperatiboak gizartea eraldatzeko tresna gisa' ulertu zenituzten... Bai, hori izan zen sorrerako motibazioa eta gaur egun ere badago taupada komun hori LANKI Kooperatibismoaren Ikertegia osatzen dugunon. Ulertzen dugu gaur egungo gizartearen erronkak askotarikoak eta konplexuak direla, eta sinisten dugu autoeraketaren logika oso interesgarria dela gizarte moduan ditugun erronkei erantzuteko. Bere burua antolatzen duen gizarte bat eraikitzeko norabidean, kooperatibismoa oso formula interesgarria da. Hori dela eta, kooperatibismoan sakontzeko eta berrikuntza sustatzeko bideak eskaintzen saiatu gara urte guzti hauetan.

Aurrera begira ere, ildo berean lanean jarraitzeko gogoz eta motibazioz dago lantaldea. Gure inguruko kooperatiben bidelagun izaten jarraitu nahi dugu. Eta nazioartean mailan, euskal kooperatibismoaren erreferentzialtasuna elikatzen jarraituko dugu, bai zirkuitu akademikoetan eta baita nazioarteko sare kooperatiboan ere.



Eskualdean genero arrakala digitala gaindintzeko proiektua

DEBAGOIENEAN EMAKUMEEN LANGABEZIA TASA GIZONENA BAINO ALTUAGOA DELA KONTUAN HARTUTA, HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEKO KOLABORATEGIA IKERTALDEAK, EMUN AHOLKULARITZAREN LAGUNTZAREKIN, ERREALITATEA ZEHAZTASUNEZ EZAGUTU ETA EMAKUMEEI ERREMINTAK EMATEKO BIDEA LANDU DU.

Proiektu hau Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako enpresa-ehunean enplegarren kalitatea sustatzeko programaren barruan kokatzen da eta dirulaguntza bidez burutu zen.

Gaur egungo digitalizazio prozesu azkarrak agerian utzi du emakumeen enplegarritasunean genero arrakala digitalak duen eragina. Proiektuaren muina Debagoiengan kokatzen da, non emakumeen langabezia tasa gizonena baino altuagoa den (Arrasaten, adibidez, emakumeen langabezia indizea %12,7koa da, orokorra baino 2,6 puntu altuagoa).

Helburuak

Helburu orokorra genero arrakala digitalan eragitea eta emakumeen enplegarritasuna sustatzeko bizialdi osoko ikaskuntza prozesu bat aktiba-

tzea da. Horretarako, bost fasetan burutu zen proiektua: Debagoieneko emakume langabeen profila eta haien presetakuntza-beharrak identifikatzea; Diseinua: behin-behineko ekosistema digital bat eraiki; ekosistema horren kontrastea egin bailarako eragileekin (erabiltzaile potentzialak, Mankomunitatea, Lanbide eta Udalak) eta nodoak aktibatu; webgune formatuko tresna inplementatu; eta gizarteratu.

Plataforma birtuala

Ekosistema digitala deritzona garatuko den plataforma birtuala da <https://ede.eus/eu/hasiera>. Tresna honen bidez, erabiltzaileek beren formatuak eta beharrak identifikatu eta eskualdean eskuragarri dauden aukeren artean ibilbide pertsonalizatu bat osatu ahal dute.

Unibertsitatean hiztun-profiletan nola eragin

'MONDRAGON UNIBERTSITATEKO HEZKUNTZA GRADUETAKO IRAKASLEGAIEEN HIZTUN-PROFILEN AZTERKETA LONGITUDINALA: EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO ERAGIN-EREMUAK' DA LETIZIA GARCIA DONOSTIAR ARABARTUAK EGIN DUEN TESIA.



Garciak egin du gure unibertsitatean ikasten duten irakasle gaien hiztun-profilen azterketa longitudinala 1.mailatik 4. mailara bitartekoa. Eta, gainera, ikerketa lanean identifikatutako erronkei erantzuteko eragin-eremu batzuk proposatu ditu.

Hain zuzen ere, tesiak baieztatu du Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasle gaien artean hiru hiztun-profil desberdin daudela: euskal hiztun aktiboak, aldaberak eta pasiboak. Eta analisiak erakutsi du profil horiek bereizten direla hizkuntza gaitasunaren, erabileraren eta hizkuntzekiko jarreraren arabera.

Baina, egiaztatu ahal izan da baita ere hiztun-profil horiek ez direla finkoak, mugimendua gertatzen dela: halaber, lehen mailatik laugarren mailara horietako batzuk euskarara gerturatu

direla, eta beste batzuk, aldiz, ez. Horrek erakusten du Unibertsitateko esperientziek euskara hurbiltzeko aukerak eskaini ditzakeela eta hor eragin daitekeela.

Eragiteko, baina, ezinbestekoa da testuinguru intenzionatuak diseinatzea, eta hori da Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen misioetako bat. Jabetzea irakasleek oso rol estrategikoa dutela gazteen euskalduntzean; eta, hortaz, hizkuntzaren normalizazio prozesuan orohar. Zentzu horretan, formazio akademiko hutsa ez da nahikoa euskal hiztun aktiboak hezteko. Horren aurrean, ezinbestekoa da bestelako ikaste-esperientzia eta testuinguruak sortzea. Hala, tesia dagoeneko hasi da inplementatzen eta Letizia Garciak zein bere lankideek lanketan jarraitzen dute.



Eraldaketa digitala oinarrizko Lanbide Heziketan

ANE ZUBIZARRETA
ARRASATEARRAK
TEKNOLOGIA HELBURU
PEDAGOGIKOEKIN
LERROKATZEKO TESIA
EGIN BERRI DU, ETA
HORRETARAKO EAE-KO
LANBIDE HEZIKETAKO 25
IKASTETXETAN ARITU DA
IKERKETA LANAK EGITEN.
ONDORIO
INTERESGARRIAK BATU
DITU, HEZKUNTZAN
APLIKATZEN ARI DIRENAK.

Ane Zubizarretak oinarrizko Lanbide Heziketan gertatzen ari den eraldaketa digitala aztertu du tesian: ikasleen eta irakasleen kompetentzia digitala, teknologien integrazioa eta ikastetxeen gaitasun digitala. Horretarako, bost analisi nagusi egin ditu, bakoitza goimailako artikulua gisa aurkeztuta. Datu bilketa EAEko 25 ikastetxetan egin du, Oinarrizko Lanbide Heziketako ikastetxeen %80 ordezkatuz. Tesi hau egitera bultzatu zuen teknologiarekiko interesak eta berau askotan hezkuntza praktikan behar bezala integratu ez izanak.

Gainera, Luganon (Suitza) SFUVET Unibertsitatean egindako ikerketa estantzia fun-

tsezkoa izan zen Zubizarretarentzat. Hango ikerlariekin elkarlanean bere ikerketa aberastu eta sendotu zuen metodologikoki eta teorikoki.

Ondorio nagusiak

Ondorio nagusietako bat da eraldaketa digitala ez dela faktore bakar baten ondorio, baizik eta elkarri eragiten dioten hainbat elementuren emaitza, non ikasleak, irakasleak, teknologiararen erabilera eta ikastetxearen testuingurua elkarri lotuta dauden.

Ikasleek kompetentzia digitala modu esplizituan garatzeko beharra dute, teknologiaro gero eta pisu handiagoa duelako, baina teknologia erabiltzeak ez du esan nahi modu kritikoa kudeatzen dutenik. Horregatik, ezinbestekoa da kompetentzia digitala modu planifikatuan eta hezkuntza helburuekin lerrokatuta lantzea ikuspegi teknopedagogikotik.

Beste ondorio bat da eraldaketa digitalak noranzko bikoitza duela: ikastetxeek digitalki aurrera egiteko ikasleen eta irakasleen kompetentziak behar dituzte, baina, aldi berean, ikasleek eta irakasleek ikastetxearen egitura, lidergoa eta baldintzak behar dituzte.

Trantsizio ekosozialerako eredu bizigarria gazteen lanbiderako heziketan

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateko Bizidunontzat zientziak ikertaldeak Gipuzkoako enpresa ehunean eta ekosistema sozio-ekonomikoan trantsizio ekologiko, jasagarria eta bidezkoa sustatzeko 2024ko programatik dirulaguntza jaso zuen 'Trantsizio ekosozialerako garapen eredu bizigarria' proiektua lantzeko.

Proiektuaren abiapuntua izan da aztertzea ea lanbide baterako prestatzen dabiltzan gazteek garapen jasagarriko helburuak, generoaren ikuspegi, eleaniztasuna, kulturartekotasuna... garapen teknologikoarekin uztartzen dituzten; hain zuzen ere, bizitza eta biodibertsitatearen zaintza helburu izango dituen trantsizio sozioekologikoaren mesteetan.

Hala, ikasleek krisi ekosozial eta garapen jasagarriarekiko daukaten ezagutza aztertu da, ikerketaren xedea Lanbide Heziketako hezkuntza programetan eragitea baita, krisi ekologiko globala bizi dugun garaian, garapen sozio-eko-


mikoak sistema bizidunen mugakerekontuan hartu behar dituelako.

Proiektuko lagina egiterakoan testuinguru sozial eta geografiko desberdinetan kokatutako ikastetxeak aukeratu dira: Miguel Altuna LHII (Bergara), Easo Politeknikoa (Donostia) eta Usurbil LHII (Usurbil). Ikastetxe horietako ziklo ezberdinetako ikasleen hautematea aztertu da.

Jaso diren ondorioak honako hauek dira: Lanbide Heziketan ikasten duten gazteek oro har ez dute beraien burua etorkizuneko eraldaketarako eragiletzat ikusten, ez langile ezta gizarteko partaide gisa ere. Arazo globalaren aurrean irtenbide indibidualetan daukate jarrita arreta; aldaketarako subjektua norbanakoa da, eta ez komunitatea edo gizartea. Etorkizuna efizientzia teknologikoaren eta bereziki materialen erabilera arduratsuaren bidetik ikusten dute, ez kontsumo ereduaren aldaketatik. Materialen krisia presente daukate, baina krisi ekologikoa ez.



Innogest, berrikuntzaren kudeaketari buruzko praktika



INNOGEST- EK, BERRIKUNTZAREN KUDEAKETARI BURUZKO PRAKTIKA KOMUNITATEAK, 10 ERAKUNDE ELKARTU DITU PROZESU PARTEKATUAN, METODOZ BERRIKUNTZA ERAIKITZEKO, ORDENATZEKO ETA FINKATZEKO, PARTE HARTZEN DUTEN ENPRESEK PARTEKATZEN DITUZTEN BENETAKO ERRONKETATIK ABIATUTA.

Innogest Praktika Komunitate bat da, berrikuntzaren kudeaketa indartzera bideratua, erakundeen arteko ikaskuntza partekatutik abiatuta. MIKek bultzatuta, ISEAre laguntzarekin eta Gizarte Ekonomia Bultzatzeko Plan Integralaren laguntzarekin, ekimenak esperientziak partekatzeko, diagnostikoak kontrastatzeko, egiturazko erronkak identifikatzeko eta hausnarketa kolektiboa ekintza errealistetan bihurtzeko gune bat eskaini die parte hartzen duten erakundeei.

